

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beñat Herce LEceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Jose Angel Petralanda Gil
Igor Ezpeleta Oregi
Aitor Urrutia Oianguren
Iñaki Madinabeitia Elorza
Juan Luis Merino Sanabria.

Idazkaria.

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamahiruko uztailaren 23an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beñat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Cantero jauna eta Arcauz andrea.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 23 de julio de 2013, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beñat Herce Leceta, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten el Sr. Cantero y la Sra. Arcauz.

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2013/01/29 eta 2013/06/25.

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2013ko uztailaren 17ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berriaz eman da 14. kreditu aldaketa espedientea onartzeko erabakiaren berri. Hona hemen espedientearen laburpena:

GASTUAK ETA KREDITU-ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

PARTIDA	IZENA			
04.06.601.452.10.08	KIROIAI			
04.06.601.452.10.09	KIROIAI			
01.01.470.432.00.01	SURADF			

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen partidak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Sarrera handiagoak / gastuetako bajak	Baliabidearen partziala
0201.870.000.00.01	Diruzaintzako gerakina:kreditu gehigarriak.		25.000 €
<i>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA</i>			25.000 €

3.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.

Aho batez erabaki da gai zerrendan honako gai hau sartzea:

- 15. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

4.- ESKORITZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA ETA ALDATZEA.

Merino jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiak alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2013ko abuztuaren 1ean hasita, eta ondoren adieraziko den aldaketarekin, urte betez luzatzea LANDUrekin sinatutako kontratua Eskoriatzako berdeguneak, parkeak, lorategiak eta pasealekuetako zuhaitzak zaintzeko eta mantentzeko zerbitzua emateko, baldintza agiriko 5. baldintzan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. eta 105. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Aldaketa:

Eskoriatzan jarritako 2 autokonpostaje guneetako mantentze-lanak egitea prezio honetan: 261,39 euro/hileko (BEZ barne), eta AKEItik hornidura ekarri behar izanez gero, bidaia bakoitza 151,25 € ordaintzea.

Aurtengo urtarriletik inolako kontraprestaziorik gabe egiten ari den Elorretako gune berriaren (II. fasea) fakturazioa. Prezioa, 310,39 € hileko izango da.

BIGARRENA.- Kontratuaren prezio berria onartzea luzapen aldirako: 11.275,31 € hileko (BEZ barne. Ez dira sartzen AKEIrako aparteko bidaiak).

HIRUGARRENA.- Kontratistak behin betiko bermea birdoitu beharko du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera.

Merino jaunak adierazi du aurka bozkatuko duela, uste duelako herrian badagoela zerbitzu hori emateko trebatu zitekeen jendea, eta enpresa herrikoa bada ere, enpresa pribatua dela, eta bere ustez, zerbitzu hori Udalak hartu beharko lukeela bere gain.

5.- MANKOMUNATUTAKO GARRAIO EGOKITUAREN ZERBITZUARI BURUZKO ERABAKIA .

“Bailarako ezinduei garraio egokitu zerbitzua eskaintzeko, 2002. urtean 12 urterako indarraldia edukiko zuen kontratua sinatu zuen Debagoieneko Mankomunitateak GUREBUS S.A.L enpresarekin.

Zerbitzu horren bitartez, Aita-Mennik Arrasaten duen 3. adineko eguneko zentzoko garraio zerbitzua eta ASPACE elkarteak bailaran duen eguneko zentruetako hainbat garraio zerbitzu betetzen dira.

Kontuan edukiz indarrean dagoen kontratua 2014ko martxoan amaitzen dela, beronekin aurrera jarraitu edo ez erabakitzeko hainbat bilera egin dituzte Debagoieneko gizarte zerbitzuetako teknikariek, mankomunitateko idazkariak eta Aita-Menni eta ASPACEko ordezkariak.

Bilera horretan ikusi da, gaur egun Gipuzkoan zerbitzu social mailan eskumenak banatzeko dauden irizpideak kontuan edukiz, arestian aipatutako zerbitzuak eskaini eta finantziatzea Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola eta ez duela zentzurik udalerriek zerbitzu hauek finantzatzen jarraitzeak.

Hori kontuan edukiz, eta Gizarte Zerbitzuetako batzordearen proposamenarekin bat etorritik, Plenoak, aho batez, honako hau erabaki du:

Mankomunitateko gobernu batzarrari honako eskaera hau egitea: Mankomunitateak bailarako ezinduei garraio egokitu zerbitzua eskaintzeko GUREBUS S.A.L enpresarekin duen kontratuaren, 2014. urteko martxoan amaitzen dena, amaiera iritsitakoan amaitutzat eman eta beste berririk ez egitea

Erabakia hartu aurretik, Urrutia jaunak galdetu du Gipuzkoako Foru Aldundia prest ote dagoen zerbitzuaren kostuaren % 100a bere gain hartzeko, eta Iregui andreak erantzun dio baietz, hala dela.

6.- HAUR ESKOLAKO UDAL ZERBITZUA (0-3 URTE, LEHEN HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOA) KUDEATZEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Haur Eskolako (0-3 urte, lehen hezkuntzako lehenengo zikloa) udal zerbitzuaren kudeaketa prozedura irekiaz kontratatzeko espedientean honako gertaera hauek jasotzen dira:

- Kontratazio honetako espedientea Udalbatzarraren erabakiz onartu zen 2013ko maiatzaren 28an egindako osoko bilkuran.
- Kontratazio Mahaiak kontratua ARIZMENDI S.COOP enpresari 12.047,16 eurotan (BEZ gabe) esleitzea proposatu zuen. Zerbitzua arautzen duen erregelamenduaren, baldintza-agiri administratiboaren eta teknikoaren, eta esleipendunak bere eskaintzan proposatutako hobekuntzen arabera bete beharko da kontratua.
- Proposamena ezagututa, kontratazioa arautzen duen baldintza-agirian eskatutako dokumentazioa aurkeztea eta 693,03€ euroko behin betiko bermea jartzea eskatu zitzaion enpresari.
- Eskatutakoari erantzunez, enpresak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzeko agiriak aurkeztu ditu eta behin betiko bermea jarri du.

Aurrez esandakoan oinarrituz, Merino jauna abstenituta eta bertaratutako gainerako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako erabaki hauek hartu ditu:

1.- Haur Eskolako (0-3 urte, lehen hezkuntzako lehenengo zikloa) udal zerbitzua kudeatzeko kontratua ARIZMENDI S.COOP. enpresari esleitzea. Esleipenaren urteko prezioa 12.047,16 € (BEZ gabe) da, eta zerbitzua arautzen duen erregelamenduaren, baldintza-agiri administratiboaren eta teknikoaren, eta esleipendunak bere eskaintzan proposatutako hobekuntzen arabera egin beharko da kudeaketa.

2.- Gastua onartzea 0404.227.421.00.17 partidaren kontura.

3.- Esleipena egiteko kontratu administratiboa onartzea. Alkateak eskatuta enpresa esleipenduneko ordezkariak sinatu beharko du kontratua.

4.- Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako kontratua Udalaren izenean eta ordezkarietan sinatzeko.

5.- Erabakia enpresa esleipendunari jakinaraztea.

6.- Behin betiko esleipen hau Udaletxeko webgunean argitaratzea (kontratugilearen eskakizunak).

7.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Berorren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabeteko epean erabaki hau jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean Donostiako auzi-administrazioetarako epaitegian inpugnatu daiteke, jakinarazten den biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, guzti hori bidezkoztat jo daitezkeen beste batzuez gain.

7.- UDAL ZERGETAN ERAGINA IZATEKO, GELLAOKO HILERRIAN EGINDAKO LANAK HERRI INTERESKOTZAT JOTZEA.

2013ko ekainaren 10eko Alkate erabakiz, ondoren adieraziko diren lanak egiteko lizentzia eman zitzaion MURUONDO GELLAOKO ELIZATEKO BIZILAGUNEN ELKARTEARI: Gellao Elizateko hilerriko teilatua konpontzea.

Lizentzia ematearekin batera, lizentziak sortutako tasa eta zergak kitatu ziren behin-behinekoz, 10,86 € eta 175,12 € hurrenez hurren.

2013ko ekainaren 17an, Ana Rosa Iregui Urrutia andreak EIOZ kuotan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantzak 5.3.3.4 artikuluan aurreikusitako hobaria egiteko eskatu du.

Kontuan izanik obrak herri interes nabarmena dutela, elizatean lurperatze zerbitzua emateko oinarrizko azpiegitura batean eragina dutelako, Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI du:

Lehenengoa.- HERRI ONURAKOTZAT IZENDATZEA GELLAOKO TEILATUA KONPONTZEKO OBRAK, eta beraz, %95eko hobaria egitea EIOZ zergaren kuotan.

8.- UDAL ZERGETAN ERAGINA IZATEKO, ZARIMUTZEKO ANTZINAKO ESKOLAK KONPONTZEKO OBRAK HERRI INTERESKOTZAT JOTZEA.

2013ko ekainaren 10eko Alkate erabakiz, ondoren adieraziko diren lanak egiteko lizentzia eman zitzaion MUITXU-ZARIMUTZ ELIZATEKO BIZILAGUNEN ELKARTEARI: Zarimutz Elizateko elizan dagoen eta "Zarimutzeko antzinako eskolak" bezala ezagutzen den lokala egokitzea.

Lizentzia ematearekin batera, lizentziak sortutako tasa eta zergak kitatu ziren behin-behinekoz, 15,36 € eta 247,69 € hurrenez hurren.

2013ko ekainaren 24an, EIOZ kuotan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantzak 5.3.3.4 artikuluan aurreikusitako hobaria egiteko eskatu da.

Kontuan hartuz eraikitako auzo etxeak interes sozio-kultural nabarmena duela auzotarren arteko elkartegintza sustatzen dituzten ekintzak egitea erraztu eta udaleko gaietan elizateko bizilagunek parte hartzeko balio duelako, Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- HERRI ONURAKOTZAT IZENDATZEA ZARIMUTZEKO AUZO ETXEKO OBRAK, eta beraz, %95eko hobaria egitea EIOZ zergaren kuotan.

9.- EAE-TIK KANPOKO ESPETXETAN DAUDEN PRESOEN SENIDEEI ETA EAE-TIK KANPOKO EPAITEGIETARA AUZIPETU BEZALA JOAN BEHAR DIREN ESKORIATZARREI GARRAIORAKO DIRU LAGUNTZA INDIBIDUALAK EMATEKO OINARRIAK ONARTZEA.

Udalbatzarkide guztiek ezagutzen dituzte onartu daitezen Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak proposatzen dituen oinarriak.

Urrutia jaunak oinarrietan jasotako ondorengo puntuei buruzko argibideak eskatu ditu:

- 2. artikulua. Onuradun bakarra egongo da preso edo espetxeratze prebentiboan dagoen pertsona bakoitzeko. Lehentasun-ordena horretan maila berean dauden bi pertsona edo gehiago badaude, zaharrenak soilik jasoko du diru-laguntza.

Bere ustez ez da izan behar zaharrena, gaitasun ekonomikoa edo beste antzeko irizpideren bat hartu beharko litzateke kontuan.

- 2. artikulua. Diruz lagundutako bisitaldiak jasotzen dituen senide zein preso edo espetxeratze prebentiboan dagoen pertsona Eskoriatzan erroldatuta egon beharko dira diru laguntza eskatzerakoan.

Uste du presoa eta bere senidea ez daudenean herri berean erroldatuta ezinezkoa izango zaiela inolako laguntzarik jasotzea bakoitza erroldatuta dagoen herrian baldintza hori eskatzen baldin bada.

Ondorengo puntuei buruzko argibideak eskatu ditu:

7. artikulua. Diru laguntza familiako ez da guztira 2.500 € baino gehiago izango, baina, diru laguntza hauetarako dagoen kreditua nahikoa ez baldin bada ezarritako irizpideen arabera emandako laguntzei % 100ean erantzuteko, dagoen aurrekontu kontsignazioa proportzionalki banatuko da diru laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskaeren artean.

10. artikulua. Araudi honetan erregulatutako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu berarekin beste administrazio publiko batzuek emandakoekin. Hala ere, ezin izango da gainditu bidaien kostu osoa.

Eskatutako argibideak jaso ondoren, esaten du oraindik ere ez dagoela ados 2. artikuluari buruz planteatutako kontuekin.

Oinarriak jendaurrean egoteko garaian alegazioak aurkeztera gonbidatu du Alkateak.

Eztabaida amaitu ondoren, bozketa egin da, eta Merino eta Urrutia jaunak abstenituta eta gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- EAE-tik kanpoko espetxetan dauden presoen senideei eta EAE-tik kanpoko epaitegietara auzipetu bezala joan behar diren eskoriatzarrei garraiorako diru laguntza indibidualak emateko oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 40 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritiz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena: Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

10.- OSOKO BILKURETAKO PARTE HARTZEAK, ETA HORIEK AKTETAN JASOTZEA.

Bertaratutako guztiek ezagutzen dute Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzaileak egindako proposamena.

Hitza emanda, ondorengoek hitz egin dute:

- Merino jaunak galdetu du denbora tarteak mozioei ere eragiten ote dizkien. Argitu zaio horiei buruzko parte hartzei eragiten diela.
- Urrutia jaunak: ikusten dut lan handia ematen dutela aktek eta parte hartzeek, eta hitz egiteko txanda luzeenak nireak izaten dira. Pentsatu gura dut Alkateak ez duela salbuespenik egiterik nahiko, sakontasun handiagoz aritzeko denbora gehiago eskatuko duten gaiak egongo direlako, adibidez, aurrekontuak onartzea. Denborak erakutsiko dizkigu aztertzeko ari garen honen ondorio praktikoak. Bere txanda amaitzeko eskatu du jendeari isiltzeko esateko, baita jendartetik murmurio modura norbaitek zerbait esaten duenean ere.

Bozketa egin ondoren, Urrutia jauna abstenituta, eta gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udalbatzarretan udalbatzarkideek hitz egiteko denborari buruz indarrean dagoen Udalaren antolamendu erregelamenduak 31. artikuluan ezarritakoa betetzeko eskatzea zinegotziei, eta betearaz dezala, Alkateari; hain zuzen ere, honako hau:

Eztabaidagai den gaia bozkatu aurretik, zinegotziek hitz egiteko baimena eskatuko diote alkateari eta onartutakoan, zinegotzi bakoitzak 5 minutuz hitz egiteko aukera izango du. Esatekoekin, kide gutxien duen taldea hasiko da eta gehien duenak amaituko du. Partehartze hau Toki Erregimenaren Oinarriak Arautzen dituen Legea eta haren xedapenetan Alkateari ematen zaizkion ahalmenen kaltetan gabe egingo da.

Alkateak ikusiz gero partehartze tarteak luze jotzen duela edo esan beharrekoak modu desegokian esaten direla, hitz egiteko txandak eteteko eskumena izango du.

Bigarrena: Toki Erakundearen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 109.1g) artikuluan ezarritakoaren arabera, udalbatzarreko aktetan, erabakiez gain, "horiek hartzeko eztabaidan edo izandako gorabeheretan parte hartu duten taldeen edo zinegotzien iritzia labur" jaso ditzala idazkariak.

11.- SARRERA-IRTEERA ERREGISTROEN ORDUTEGIA ALDATZEA, 2013KO URRIAREN 1ETIK AURRERAKO ERAGINAREKIN.

Iregui andreak aurka bozkatuta eta bertaratutako zinegotzi guztiek alde, Udalbatzarrak ondorengo erabakiak hartu ditu:

Lehenengoa.- 2013ko urriaren 1etik aurrerako eraginarekin, ondorengo ordutegia finkatzea jendearantzako eta SARRERA ETA IRTEERA ERREGISTROA irekitzeko:

- LANEGUNETAN ASTELEHENETIK OSTIRALERA (abuztuan ezik): 9:00-14:30
- ABUZTUA: 10:00-13:00

Bigarrena.- Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko Departamentuari.

(Bozketa egin baino lehen, Merino jaunak adierazi du ez dagoela guztiz ados ostegun arratsaldea kentzearekin, bere ustez batzuk, lan kontuengatik, bi ordu horiek aprobetxatzen dituztelako dokumentuei sarrera emateko).

12.- OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIO ORDENANTZAREN 15. ARTIKULUA ALDATZEA.

Gobernazio azpibatzaletik, eta udaltzaingoak horrela eskatuta, trafikoari buruzko ordenantzaren 15. artikuluan atal berri bat, 17.a, sartzea proposatzen da.

15. artikulua: Aparkatzea debeku da, erabat, honako egoera hauetan:

- 1. Gelditzea debekatuta dagoen tokietan.*
- 2. Kasuan kasuko seinaleek aparkatzeko debekua adierazten duten tokietan.*
- 3. Ibilgailuaren eta galtzadaren bestaldeko ertzaren edo galtzadako luzetarako marka zeharkaezin baten arteko distantzia hiru metrotik beherakoa denean edo, edozein kasutan, beste ibilgailuen iragaitea eragozten edo maniobra arriskutsuak egitera behartzen duenean.*
- 4. Bigarren ilaran, hala lehenengo ilarakoa ibilgailu bat bada nola edukiontzi edo babeserako elementu bat bada.*
- 5. Galtzadaren erdian. Ibilgailu bat galtzadaren erdian dagoela ulertuko da, baldin eta espaloiarene ondoan ez bada.*
- 6. Ibilgailu lerro bakar batentzako tokia besterik ez duten kaleetan.*
- 7. Zirkulazio-noranzko biko kaleetan, baldin eta galtzadaren zabalera bi ibilgailu lerro iragaiteko tokia besterik ez bada.*
- 8. Espaloietan, nasetan, aterpeetan, erdiko eta alboetako ibilbideetan eta zoladuran zerrendez seinaleztatutako guneetan, hala okupazioa partziala nola osoa bada.*
- 9. Salgaien zama lanak egiteko bereizitako guneetan.*
- 10. Ibi edo pasabideetan, osorik edo partzialki bada ere.*
- 11. Toki ber batean ondoz ondoko bi hilabetetik gorako epean edo zehaztu gabeko aldi baterako, ibilgailua abandonatuta dagoela pentsarazteko moduan.*
- 12. Aparkalekuen perimetroetan seinalatutako mugetatik kanpo.*
- 13. Espaloirik gabeko kale urbanizatuetan.*
- 14.- Baimendutako jarduketetarako okupatuak izan litezkeen guneetan edo konpondu, seinaleztatu edo garbitu beharrekoetan. Kasu horietan, debekua behar bezala jakinaraziko da, hedabide egokien bidez eta aparkatuta dauden ibilgailuen haizetakoetan ohar orriak utziz. Aldez aurreko iragarpen hori denbora nahikoaz egingo da, premia justifikatuko kasuetan izan ezik.*
- 15. Kasuan kasuko garbiketa zerbitzuei edo bestelako bilketa zerbitzuei edukiontziak edo bestelako biltegiak hustea eragozten zaien tokietan.*
- 16. Zirkulazioa oztopatzen den tokietan, edo ikuspen urriko tokietan, beste ibilgailuen ikusgaitasuna modu arriskutsuan murriztarazten den edo ageriko arriskua lekarketen arauz kanpoko maniobra egitera behartzen duten tokietan.*

17.- Aparkatzeko txartela duen ezinduaren gidari laguntzaileak bi ordu baino gehiago ezinduentzako erreserbatutako aparkalekuetan.

Bertaratutako guztiak egin beharreko aldaketen jakinaren gainean egonda, honako hauek hartu dute hitza:

- Merino jaunak esan du aparkatzeko leku gehiago egokitu beharko lirakeela, eta ez isunak jartzeko kasuak gehitu.
- Urrutia jaunak adierazi du ez dagoela ados proposamenarekin, berak esan duenez, ahulenen aurka egitea da, ezgaituaren familiakoa ez dena bi ordu gora egon daitekeelako aparkatuta aparkaleku batean. Txartelen titularitatea hobeto aztertzearen aldeko da, eta bere ustez, badirudi aparkatzeko denbora mugatzeaz gain ez dagoela beste trafiko arazorik Eskoriatzan. Esan du aldaketa planteatzen baldin bada hirugarren batek gaizki erabiltzen duelako beste norbaiten txartela, horri ez zitzaiola utzi behar 2 ordu horietan aparkatzen ere, eta isuna jarri beharko litzaiokeela; norbaitek ezgaituren bat baldin badu bere kargura ez duela arrazoirik ikusten horri denbora mugatzeko.

Urrutia jaunaren ezezko botoarekin, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Indarrean dagoen trafikoari buruzko Udal ordenantzan proposatutako aldaketak hasiera batean onartzea.

Bigarrena.- Aldaketak jendaurrean jartzea datorren irailaren 30era arte, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ditzan. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udalbatzarrak erabaki beharko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, ordenantza behin betiko onartutzat joko da erabaki berririk hartu behar gabe, horrela aurrekusten baitu apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatutako Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.c) artikulua.

13.- UDAL ETA TELESKOKO PLANTILLAKO LANGILEEN ETA LIBERATUTAKO ZINEGOTZIEN 2012KO ABENDUKO APARTEKO ORDAINSARIEN GAIENKO ERABAKIA.

Administrazio publikoen aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna bermatzeko neurri berezietan buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-Dekretuak bere 2. artikuluan ezarri zuen sektore publikoko langileei, 2012an, ordainsaria murriztuko zitzaieela abenduko lansari bereziaren zenbatekoaren kopuru berean.

Aipatutako artikulua oinarritzko izaera du, eta beraz, derrigorrez aplikatu beharrekoa Udal honetako langileei.

Bestalde, Errege Dekretuko 2. artikuluko 4. atalak honako hau dio: "Lansari berezia eta berariazko osagarriko lansari gehigarriak edo lansari gehigarri baliokideak kentzetik datozen kopuruak, artikulua honetan xedatzen duenarekin bat, erabiliko dira geroko ekitaldietan pentsio planei edo erretiroaren estaldura barne hartzen duten aseguru kolektiboen kontratuei ekarpenak egiteko, Aurrekontua Egonkortzeari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan ezarritakoari loturik eta dagozkion aurrekontu legeetan zehazten diren terminoetan eta zehazten duten zenbaterainoekin".

Udalak, legeak derrigortuta, ez zuen abenduko lansari berezia ordaindu, eta era berean, 2012ko eta 2013ko ekitaldietako udal aurrekontuetan horretarako aurreikusitako kredituak ez dira erabili eta ez dira erabiliko ere, eta beraz, urte bakoitzaren amaieran gastuak txikiagoak izango dira, horrela, legeak eskatutako betez.

Era berean, dedikazio osoa edo partziala duten udal karguek -udal langileei elkartasuna adierazteko- uko egin zioten beraien gabonetako lansariari; eta beraz, aurrekontuetan horretarako jasotako kopuruak ere ez dira erabiliko, eta ondorioz, ekitaldiaren amaieran gastua txikiagoa izango da.

Horiek beteta, eta 20/2012 Errege Lege-Dekretuko 2.4 artikuluan aurreikusitakoari erantzuteko, etorkizunean diru horiek pentsio planetarako ekarpenak egiteko erabiltzera behartuta egon gaitezkeelako, eta Udalak horretarako aurrekontu zailtasunak izan ditzakeelakoan, komenigarritzat jotzen da funts bat eratzen joatea Udalak, horrela balitz, izan ditzakeen betebeharrak finantzatzeko.

Horretarako, eta udal aurrezkiaren bidez 20/2012ko Errege Lege-Dekretuko 2.4 artikuluan ezarritako beharra betetzea ahalbideratzeko, Udaltzatarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2012ko kitapenaren ondorioz gaur egun erabilgarri dagoen gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinetik 79.211,40 euro gordetzea ondorengo banaketaren arabera:

- a. 2012KO KITAPENETIK GASTU OROKORRETARAKO DAGOEN DIRUZAINZAKO GERAKINA: 2.084.962,87 €.
- b. KREDITU ALDAKETETAN ERABILITAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA: 1.547.086,10 €
- c. 2012KO UZTAILAREN 18AN ERABILGARRI DAGOEN GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA: 537.876,77 €

Bigarrena.- TELESKOko 2012ko kitapenaren ondorioz gaur egun erabilgarri dagoen gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinetik 2.385,89 euro gordetzea ondorengo banaketaren arabera:

1. 2012KO KITAPENETIK GASTU OROKORRETARAKO DAGOEN DIRUZAINZAKO GERAKINA: 4.191,76 €.
2. KREDITU ALDAKETETAN ERABILITAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA: 0 €
3. 2012KO UZTAILAREN 18AN ERABILGARRI DAGOEN GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA: 4.191,76 €

14.- 2012KO KONTU OROKORRAK ONARTZEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63. artikulua betez, Kontu Batzorde Bereziak 2012ko ekitaldiko kontuak eta kontabilitate-egoera aztertu zituen, hau da, honako hauek: Udalaren eta Telesko Udaltzatarrak fundazioaren urteko kontuak eta kontabilitate-egoera; eta horrekin batera, horiek justifikatzeko dagozkion dokumentuak eta Udalaren eta Telesko fundazioaren aurrekontuen kitapenak.

2013ko maiatzaren 23an egindako bilkuran Kontu Batzorde Bereziak aipatutako kontuak onartzearen aldeko diktamena eman zuen.

2013ko maiatzaren 28an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez jendaurrean jarri ziren 15 egunez, eta epe horretan ez da inolako alegaziorik edo erreklamaziorik egon.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

“2012ko ekitaldiko Udaleko kontu orokorren gaineko espedientea behin betiko onartzea, 2013ko maiatzaren 23an egindako Kontu Batzorde Berezian hasiera batean onartu ondoren, eta 2013ko maiatzaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik ezarritako epea igaro baita hasiera batean onartutako espedientearen aurka inolako ohar edo erreklamaziorik egin gabe”.

15.- 15. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Ez dago proposamenik.

16.- HASIERA BATEAN ONARTZEA “ESKORIATZAKO UDALEKO LANDA GUNETAKO UDAL BIDEAK ARAUTZEKO ORDENANTZA”.

Bertaratutako guztiek ezagutzen dute Hirigintza batzorde informatzaileak proposatzen duen ordenantza Eskoriatzako Udaleko udal landa bideak arautzeko, eta hitza emanda, honakoek hitz egin dute:

- Urrutia jauna: esaten du ez dagoela nondik heldu ordenantzari, astoa gurdiaren aurretik jartzea bezala dela, eta adibide modura, ados ez dagoen artikulua aipatu ditu, honako hauek:

1. artikulua: *Udal ordenantza honen helburua da Eskoriatzako udalerrian herrigunetik kanpo dauden udal titularitate publikoko errepide eta bideen araubide juridikoa ezartzea.*

2.2 artikulua: *ordenantza honen eraginetarako, hormigoizko bideak izango dira hormigoiz egindakoak hainbat kanpainetan eta partikularrek hormigoitu eta Udalari lagatakoak. Orokorrean, landa gunetako norbait bizi den baserri edo etxebizitzetarako bideak dira edo nolabaiteko garrantzia edo erabilera duten lekuak lotzeko bideak. Normalean, errodadurako bideak hiru metroko zabalera izaten du.*

Artikulu horri buruz egindako galdera: Zer bide daude Udalari lagata?

3. artikulua: *Eskoriatzako Udalarenak dira Eskoriatzako udalerriko bide publikoen sarearen inbentario-katalogoan sartutako hormigoizko errepide eta bideak, pistak eta bideak.*

Hau esan du: uste dut bideen inbentarioa oraindik onartu gabe dagoela, inbentarioa egin gabe dugu eta ordenantza onartu nahi da; uste dut lehenengo inbentarioa egin beharko litzatekeela eta, gero, ordenantza onartu.

6. artikulua. *Inbentario izaera izango duen udalerriko errepide eta bide katalogoa onartu eta eguneratuta izango du Udalak.*

Hau esan du: lehen esandako diot berriz ere, ez du balio juridikorik. Eta, gero, honako xedapen gehigarria dago: *Alkateari berriaz eskuordetzen zaio bere eskumeneko gaietan, eta horiek hobeto egiteko horrela behar denean, xedapenak erabaki bidez hartzeko.*

Hau galdetzen du: zer da Alkateari bere eskumeneko gauza eskuordetze hori?

Eta honakoa gehitu du: eta, bigarren xedapen gehigarriak honako dio: *Ordenantza honek bandora bidaltzen duen kasuetarako, Alkateari eskuordetzen zaio eta ahalmena ematen zaio organo honen eskumeneko gaiak izan eta legez eskuorde ezinak direnak garatzeko, ordenantza honetako helburuak ahalik eta ondoen betetzeko garatu ditzan.*

Galdera hau egiten du: zer da Alkateari ahalmena emate hori bera bada bandoak egiteko ahalmena duen bakarra?

Hitz egiteko txanda izan duen bitartean behin eta berriz esan du bera ez dela 300 metro edo gutxiago izan behar den edo ez moduko definizioetan sartuko, bera ez dagoela ados ordenantza onartzearekin oraindik hori aplikatzeko eremurik ez badago, eta Alkateari bereak direlako eskuordetu ezin zaizkion eskumenak eskuordetzeari buruz hitz egitearekin edo bereak diren ahalmenak ematearekin, esaterako, bandoak ateratzea. Gehitu du ordenantza horrekin interes publikoa defendatu behar dela, eta susmoak dituela interes partikularrak defendatzea nahi ez ote diren.

Madinabeitia jaunak erantzun dio inbentario batekin hasi zela, eta bide bat publikotzat kalifikatzearen ondorioei buruzko zalantzak sortu zirela. Hasiera batean, esan du, lehenengo inbentarioa eta gero ordenantza egitea pentsatu genuen, baina, batzordean, zeuden zalantzak ikusita, uste izan zen hobe zela lehenengo araua egitea abstraktuki, arazo zehatzei erantzunik eman gabe, kontzeptua definitzea inbentarioa zehazterakoan nondik nora ibili jakiteko. Urrutia jaunak adierazitako susmoei buruz esan du berak ez duela eztabaida horrekin jarraitu nahi.

Parte hartzeak amaitu ondoren bozketa egin da. Merino jauna abstenituta, Urrutia jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- ESKORIATZAKO UDALEKO LANDA GUNETAKO UDAL BIDEAK ARAUTZEKO ORDENANTZA hasiera batean onartzea.

Bigarrena.- Erabakia jendaurrean jartzea 40 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharra egin ditzan.

Hirugarrena.- Hartutako erabakia behin betikoa izango da, berriro erabakirik hartu behar gabe, jendaurrean erakusten den epean erreklamaziorik egiten ez bada.

17.- ZAINZA PARTEKATUAREN EUSKAL LEGEARI BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Iregui andreak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

GURASO ERANTZUKIDETASUNAREN EUSKAL LEGEAREN ALDE

1-1989ko azaroaren 20an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak aldarrikatutako Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak, 1990eko azaroaren 30ean Espainiako estatuak berretsi zuenak, Estatuak behartzen ditu haurrak bere bi gurasoekin modu erregularrean harreman pertsonalak eta kontaktu zuzena izateko duen eskubidea gordetzera, haurraren osotasunerako kaltegarria izango litzatekeen kasu haietan salbu.

2-- Hitzarmen horretako 5. artikulua Estatuak zehazki eta espresuki behartzen ditu aiten eta amen erantzukizunak eta betebeharrak errespetatzera, baita beste familia kideenak ere, haurrari bere garapenarekin eta gaitasunekin bat datorren orientabidea ematerakoan.

3- Eta 18. artikulua zehazten du aiten eta amen lehen erantzukizuna dela seme-alaben haziera eta Estatuen betebeharrak dela erantzukizun hau betetzen dela zaintza.

Begi bistakoa da indarrean dagoen dibortzioaren legeak, ulertzeraren ematen duenaren eta emaitzen arabera, zaintza partekatua ohiz kanpoko aukera moduan hartzen duela. Begi bistakoa da aipatutako eskubideak urratzen direla lege honen anparoan.

4- Auzitegi Gorenak apirilak 29ko 257/2013 sententzian esaten du, zaintza partekatua izan behar dela araua, bi parteen edo bakarraren eskaeraren ondorioz, adinez txikiaren kalterako izan daitezkeen kasu haietan ez. Beraz, gogoan hartu beharreko irizpideak ezartzen ditu.

5- Gizon eta emakumeen arteko funtsezko berdintasuna bizitzako alor guztietan iraunkorra da demokrazia aurreratuenetan eta helburu nagusia berdintasunezko gizarte zuzenago bat lortzeko bidean.

6- Oinarri hauen garapenean Eusko Legebiltzarrean seme-alabak dituzten gurasoen elkarbizitzaren haustura kasuetarako familia harremanen eta gurasoen erantzukidetasunaren lege proposamena aurkeztu eta izapidetu da.

Guzti honegatik Eskoriatzako Udalak Eusko Legebiltzarrari presazko izaeran euskal erantzukidetasun legea bideratu eta onartzeko eskaera egiten dio Euskal Herrian zaintza partekatua lehentasunezko eredu nagusi izan dadin

Hitz egiteko txanda eman du Alkateak:

Merino jauna: aurka bozkatu behar dut ondoren esango ditudan arrazoiengatik. Zaintza partekatuari dagokionez, zaintza erantzukizunez egitearen alde gaude, arlo horretako aldaketak gizarte osoaren laguntzarekin eta gizon eta emakumeak ados jarrita bakarrik egin daitezkeen konbentzimenduan oinarrituta. Uste dugu zaintza partekatua aukera onena dela, betiere, ezkontide biek askatasunez eta adostuta onartzen baldin badute; eta ez dela egingarria ezta positiboa ere ezkontideak ados jarri gabe inposatutako neurri judiziala denean; eta ezin dela eman genero indarkeria kasuetan. Horregatik, IU-k ez du lanik egingo eta ez du utziko ez egiteagatik eta ez egiteagatik, zaintza partekatuak lehentasuna izateko inolako lege edo erregelamendu garapenean.

Urrutia jauna: abstenitu egingo naiz. Ados nago filosofiarekin, baina, uste dut kasuak eta kasuak daudela, Juan Luisek aipatu duen bezala. Gai hori Legebiltzarrak aztertzeko utziko nuen.

Iregui andrea: gu ere abstenitu egingo gara. Uste dugu onena izango litzatekeela, baina, gero, errealitatean, askotan ez da horrela. Filosofia ona da, baina, egunez eguneko errealitatea bestelakoa da, gastu arloan gertatzen dena ikusi besterik ez dago.

Alkate jauna: uste dut ez dela behartu behar, lehentasun bezala jarri, beharbada bai, baina ez behartuta. Uste dut, Aitorrek bezala, gai hori eztabaidatzeko leku egokiena Legebiltzarra dela.

Hitz egiteko txandak amaituta, bozketa egin da. Merino jaunak aurka bozkatuta eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek abstenituta, Udalbatzarrak mozioa ez da onartu.

18.- EZKER BATUA UDAL TALDEAREN ESKARIZ ESPAINIAKO GOBERNUAREN DIMISIOA ESKATZEKO MOZIOA.

Merino jaunak labur justifikatu ditu ondoren transkribatzen den mozioa aurkezteko arrazoiak:

ZIOEN AZALPENA

Partido Popularra Gobernu Zentralera hauteskunde programa batekin iritsi zen, eta bestelako bat ezarri du. Rajoyk sistematikoki ez ditu betetzen bere hauteskunde programako puntu guztiak eta bakoitza. Iruzur demokratiko handi baten aurrean gaude.

Enplegua sortzea izango zela bere helburu nagusia eta 3.000.000 lanpostu sortuko zituela hitzeman zuen. Eta, emaitzak honako hauek dira: 6.200.700 langabe, 1,7 milioi etxetan kide guztiak langabezian, 2.000.000 langabetu inolako prestaziorik gabe eta gazteen % 57 langabezian.

Ongizate estatuaren egungo mailari eusteko ekonomia berrindartuko zuela hitzeman zuen.

Rajoyk eta Gobernuak depresio ekonomikoa ekarri digute, eta horrekin, gero eta hiritar gehiago jartzen dituzte pobrezia eta gizarte-bazterketarako bidean.

Gehiengoarentzako gobernatuko zuela hitzeman zuen. Hala ere, banketxeentzat gobernatzen du, eta ez pertsonentzat. Bere gobernuarekin, eta PSOEn aurrekoarekin, jaso dute banketxeek orain arteko baliabide publikoen transferentzia handiena: 185.000 milioi eurotik gora konprometituta banketxeak eta finantza sistema osoa salbatzeko fondoetan.

Hauteskunde kanpainan hitzeman zuen ez zituela ukituko ongizate estatuaren oinarriko 3 zutabeak: osasuna, hezkuntza eta pentsioak. Urtebete baino lehen osasuna pribatizatu dute beraiek agintzen duten lekuetan (Valentzia, Madril...), irakaskuntza publikoarekin amaitu nahi dute (Wert legea) eta pentsioei eman beharreko aizkorakada prestatzen ari dira. Beraien helburua zerbitzuak eta enpresa publikoak pribatizatzea da.

Lortutako eskubide sozialetan atzera ez zuela egingo hitzeman zuen. Hala ere, gure herriko demokrazia aldiko abortu lege atzerakoiena prestatzen ari dira.

Ustelkeriarekin amaituko zuela hitzeman zuen eta ustelkerian nahasitakorik abalatu ez zuen alderdi bezala aurkeztu zuen PP. Aldiz, gaur egun ustelkeriaren alderdia da PP: Barcenas, Gürtel, Rato, Ana Mato, Fabra eta abar.

Beste modu batera gobernatuko zuela hitzeman zuen: gizarteari eta hiritarren proposamenak entzunda. Rajoyk guztiz kontrakoa egin du: entzungor egin dio bestelako politika batzuk eskatzeko herriaren oihuari: preferenteak, ordainean ematea, mareak, unibertsitateko tasak... Ez die kasurik egiten Kongresura agertzeko eskariei, ez da komunikabideekin egoten...

Hauteskunde kanpainan estatuko bizitza demokratikoa onbideratuko zuela hitzeman zuen.

Aldiz, gehiengo nagusiaren arrabola aplikatuz eta dekretu legez gobernatzen ari da.

Gainerako gobernuari (autonomia erkidegoak eta udalak) erakundeen arteko leialtasuna zainduko zuela hitzeman zien. Baina, autonomia erkidegoen autogobernu ahalmena mugatzen ari da eta udal kopurua murriztuko duen, udal zerbitzuak pribatizatuko dituen eta udalen eskumen historikoak kenduko dituen Toki Administrazio legea proposatzen du.

Partido Popularreko Gobernuak ongizate estatua suntsitzen ari da, hezkuntza eta osasuna pribatizatze bidean da, lan eskubideak murrizten ditu...

Azken aldi honetan ustelkeria kasu berriak ezagutu ditugu, Gürtel kasua, Brugal, Emarsa, Noos, kooperaziorako dirua erabili zuen Blasco konjurazioa eta abar. Eta, orain, PPko diruzain

ohi Barcenasen kasua, Suitzan dituen banku kontuekin eta PPko agintariak ustez jasotzen zituzten gain soldatekin. Gobernuko eta Partido Popularreko presidente Mariano Rajoy zuzenean seinalatzen duen kasua.

Hori guztiori gure herria bere egoera ekonomiko okerrean igarotzen ari den honetan, 6 milioi langabaturekin dagoeneko; troiak ezarritako austeritate eta murrizketa politikekin, egunetik egunera herritarrak gero eta gehiago estutzen ari direnak. Administrazio publikotik egiten diren horrelako jarduerak gero eta gehiago aldentzen dituzte politikoak herritarrengandik, eta demokrazia hondatzen ari dira. Aurrez esandako guztia kontuan harturik, Udalbatzarrak onartu ditzan aurkezten dira ondorengo erabakiak:

ERABAKIAK

1. Eskoriatzako Udalak gobernuko presidentearen dimisioa eta hauteskundeak aurreratu daitezela eskatzen du.
2. Erabaki horren berri ematea honako hauei:
 - Diputatuen Kongresuko parlamentuko taldeei.
 - Gobernuko presidenteari.

Hitz egiteko txanda emanda, ondorengoek hitz egin dute:

Urrutia jaunak dio abstenitu egin behar dela. Adierazi du azterketarekin ados egon badaiteke ere, ez dakiela errezeta egokia ote den dimisioa. Dimisioa zertarako? Esan du, zu kendu eta ni jartzeko? Espainiako politikaren arazoa da ez dagoela alternatibarik (ondoren, alternatiba hori ez dagoela esateko dituen arazoak azaldu ditu eta baita ere zergatik uste duen Espainiak estatu bezala, ez duen enpresa sarerik, produkzio sarerik...)

Alkate jauna: ni ez naiz ordezkatuta sentitzen, eta horregatik, uste dut ez naizela hasi behar esaten nork gobernatu behar duen bertan, baina, Espainiako beste kontu batzuetan ere sartu garenez, eta uste dudanez gaizki pasatzen ari diren espainiar asko daudela, Ezker Anitzaren eskaeraren alde egingo dut.

Eztabaida amaituta, bozkatu egin da. Mozioa onartu da Urrutia jauna eta Madinabeitia jauna abstenituta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta.

19.- GALDE ESKEAK.

Merino jaunak egindako galderak:

1.- Mozioak

Eskatu du mozioetan jasotzen baldin bada erakunde edota pertsona batzuei jakinaraziko zaiela mozioa, mozioa horiei jakinarazteko konpromisoa har dadila.

Alkateak justifikatzeko esan du beti horrela ez baldin bada egiten baliabiderik ez dagoelako dela, baina, konpromisoa hartzen duela irailetik aurrera jakinarazpen guztiak egiteko.

2.- Lan-kontratudunen hitzarmena

Galdetu du lan-kontratudun langileei buruz ea hitzarmen berria sinatu arte hitzarmena luzatzeko akordiorik sinatu den.

Alkateak jakinarazi du mozio bat zuela, baina, ez duela aurkeztu alde zuretik langileen ordezkariekin adostu nahi duelako.

3.- Elizateetako kontuei buruz zer nolako jarrera hartu behar duen

Esan du gaur abstenitu egin dela elizateekin zerikusia zuten gai guztietan, eta etorkizunean ere abstenitu egingo dela. Bere jarrera justifikatzeko esan du elizateek, bi zinegotzi izanda eta horrek dakarren ordezkaritza, ez dutela parte hartu hondakinen mahaian, eta badirudiela gaia ez zaiela interesatzen.

4.- Batzorde informatzaileen egunak eta orduak

Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuari bidali zion posta elektronikoko bat aipatu ondoren, esaten du batzordeetako egunak eta orduak adostu beharko lirakeela.

Iregui andreak, Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak, esan dio erantzun ziola posta elektronikoz eta ez duela ezer gehiago esatekorik.

Alkate jaunak esan du uste duela ahalegina egin dela zinegotzi guztiak batzordeetara joan ahal izatea bermatzeko, berak ohitura duela urte amaiera aldera posta elektronikoko bidez hurrengo urteko batzordeen egunak aurreratzeko, eta, gainera, batzorde askotan hurrengo batzorderako eguna eta ordua jartzen dela. Esan du adibide moduan jarri gura duela azkenengo pertsonal eta ogasun batzordeetan gertatutakoa, arratsaldean jarri zirela, eta horregatik ezin izan zuela Mankomunitateko bilera batera joan; eta arratsaldean jarri zirela Merino jaunak esan ziolako batzordera joan nahi zuela, eta gero, Merino jauna ez zela joan bi batzordeetako batera ere ez.

5.- CLARA CAMPOAMOR elkarteko ordezkariekin izandako bilera

Bilera horretan hitz egindakoaren berri eskatu ondoren, Iregui andreak jakinarazi dizkio bertan jorratutako gaiak.

Urrutia jaunak egindako galderak.

1.- Erkotz baserria

Urrutia jaunak galdetu du zer arazo dagoen Erkotz baserriarekin, eta Madinabeitia jaunak honakoa erantzun dio: zer gertatzen da? zertaz ari zara?

2.- Kaleratzei buruzko mahaia

Urrutia jaunak galdetu du ea proposamenik eraman behar den kaleratzei buruzko mahaira.

Iregui andreak erantzun dio Udalean inolako kasurik jaso ez denez, lehen bilera bat egin gura dela gaia lantzen hasteko.

Alkate jaunak esan du plataformarekin informazioa partekatzea eta lanean hastea gura dela.

Merino jaunak jakinarazi du plataformak gida txiki bat duela lanean hasteko.

4.- Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

Urrutia jaunak galdetu du ea HKEEk amaitu duen bere lana.

Alkateak jakinarazi dio landa-lana amaitu dutela, baina, txostenak egitea falta dela.

5.- Mankomunitateko aktak.

Urrutia jaunak eskatu du Mankomunitateko aktak berari helaraztea. Alkateak aktak emateko konpromisoa hartu du.

Madinabeitia jaunak esandakoa.

Madinabeitia jaunak Ezpeleta jauna zoriondu du hondakinen inguruan adostasunera iristeko egiten ari den lanarengatik eta bide horretan jarraitzera animatu du. Merino jaunari esan dio gai horri buruzko bere iritzia (Madinabeitia jaunarena) behin baino gehiagotan azaldu duela eta jakina dela Ingurumen batzordean, eta batzordeak daraman lan ildoak ikusita esan zuela berak ez zuela ekarpen asko egitekorik.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 20:45ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

2013-07-23an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA
CORPORACIÓN. Día 23-07-2013

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beñat Herce LEceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Jose Angel Petralanda Gil
Igor Ezpeleta Oregi
Aitor Urrutia Oianguren
Iñaki Madinabeitia Elorza
Juan Luis Merino Sanabria.

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamahiruko uztailaren 23an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udaltzarrak, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Urrutia jauna eta Urzelai andrea.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 23 de julio de 2013, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten los Srs.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conforme son aprobadas las actas de las sesiones de fecha 29 de enero de 2013 y 25 de junio de 2013.

2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 17 de julio de 2013 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

Se da cuenta de forma expresa de la resolución aprobatoria del expediente de modificación de créditos N° 14, cuyo extracto es el que sigue:

GASTUAK ETA KREDITU-ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

PARTIDA	IZENA			
04.06.601.452.10.08	KIROI A			
04.06.601.452.10.09	KIROI A			
01.01.470.432.00.01	SURADF			

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen partidak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Sarrera handiagoak / gastuetako bajak	Baliabidearen partziala
0201.870.000.00.01	Diruzaintzako gerakina:kreditu gehigarriak.		25.000 €
<i>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA</i>			25.000 €

3.- RATIFICACION DE LA INCLUSION DE ASUNTOS DENTRO DEL ORDEN DEL DIA.

Por unanimidad se acuerda ratificar la inclusión del siguiente asunto dentro del orden del día:

- EXPEDIENTE DE MODIFICACION DE CREDITOS Nº 15.

4.- PRORROGA Y MODIFICACIÓN DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE CONSERVACIÓN, MANTENIMIENTO Y LIMPIEZA DE ZONAS VERDES, PARQUES, JARDINES Y ARBOLADO DE PASEOS EXISTENTES EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE ESKORIATZA.

El Pleno, con el voto en contra del Sr. Merino y el voto favorable el resto de corporativos presentes, ACUERDA:

PRIMERO.- Prorrogar por un periodo de 1 año, contado a partir del próximo 1 de agosto de 2013, y con la modificación que a continuación se indicará, el contrato suscrito con LANDU para la prestación del Servicio de Conservación, Mantenimiento y Limpieza de zonas verdes, parques, jardines y arbolado de paseos existentes en el término municipal de Eskoriatza: de acuerdo con lo establecido en la cláusula 5 del pliego y en el art. 23 y 105 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

Modificación:

Mantenimiento de las 2 zonas de autocompostaje instaladas en el municipio de Eskoriatza, al precio mensual de 261,39 €/mes (IVA incluido) y, en caso de necesitar suministros de AKEI, al precio de 151,25 € cada viaje realizado.

Facturación de la nueva zona de Elorreta (II fase, que desde enero del presente año se viene realizando sin contraprestación. El precio es de a 310,39 €/mes

SEGUNDO.- Aprobar el nuevo precio del contrato durante el periodo de prórroga, que queda establecido mensualmente en 11.275,31 € (IVA incluido y viajes extras a AKEI no incluidos.)

TERCERO: El contratista deberá de reajustar la Garantía Definitiva, de acuerdo con la Ley de Contratos del Sector Público.

